



SEGURTASUN SAILA  
Administrazio eta Zerbitzuen  
Sailburuordetza  
Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen  
eta Hauteskunde Prozesuen  
Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE SEGURIDAD  
Viceconsejería de Administración  
y Servicios  
Dirección de Régimen Jurídico, Servicios  
y Procesos Electorales

# DATU PERTSONALAK BABESTEARI ETA DATUAK BABESTEKO EUSKAL AGINTARITZARI BURUZKO LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN AMAIERAKO MEMORIA

## I. AURREKARIAK DESKRIBATZEA ETA ARAUGINTZA-EKIMENAREN JUSTIFIKAZIOA.

Datu pertsonalen babesaren arloko egungo arau-esparru autonomikoa honako arau hauetan jasota dago:

- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.
- 308/2005 Dekretua, urriaren 18koa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena.
- 309/2005 Dekretua, urriaren 18koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua onartzen duena.

2018az geroztik, hainbat arau jarri dira indarrean, bai Europan, bai Estatuan, eta EAEko araudia ez dator bat arau horietan jasotakoarekin.

Aztertzen ari garen lege-aurreproiektuaren helburua da datuen babesaren arloko EAEko araudia egokitzea ondoren azaltzen diren arauetan jasotako aurreikuspenetara:

- Europako Parlamentuaren eta Batzordearen 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babesten dituen datu pertsonalen tratamenduari eta datuen zirkulazio askeari dagokionez, eta 95/46/EE Zuzentaraua bertan behera uzten duena (aurrerantzean, DBEO)
- 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa. (Aurrerantzean, DPBEBLO).
- 7/2021 Lege Organikoa, maiatzaren 26koa, Arau-hauste penalak prebenitzeko, detektatzeko, ikertzeko eta epaitzeko eta zigor-zehapenak betearazteko tratatzen diren datu pertsonalak babesteari buruzkoa. (Aurrerantzean, DPBLO).

Era berean, araren xedea da Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren araubide juridikoa erregulatzea.

## II. LEGE-AURREPROIEKTUA IZAPIDETZEA.

- 2021eko maiatzaren 21ean, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariak ebazpen bat eman zuen, zeinaren bidez jendaurrean jarri baitzen Datu Pertsonalen Babeseko Legearen aurreproiektu bat egitea. 2021eko maiatzaren 26tik ekainaren 22ra egin zen kontsulta.





- 2021eko urriaren 27an, lehen lehendakariorde eta Segurtaguneko sailburuak agindu zuen has zedila datu pertsonalak babesteari buruzko lege-aurreproiektu bat egiteko prozedura, hura izapidetu eta Gobernu Kontseiluari aurkezteko.
- 2022ko urtarrilaren 13an, memoria ekonomikoa egin zen.
- 2022ko urtarrilaren 27an, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariak aurreproiektuaren justifikazio-memoria egin zuen.
- Lege-aurreproiektua egin ondoren, 2022ko urtarrilaren 31n, lehendakariorde lehen eta Segurtaguneko sailburuak aurreproiektuaren testua aurretiazko izaeraz onartu zuen.
- 2022ko otsailaren 7an, honako agiri hauek bidali zitzaizkion Eusko Legebiltzarrari: Hasteko agindua, aurretiko onarpenaren agindua eta aurreproiektuaren testua, Jaurlaritzari buruzko ekainaren 30eko 7/1981 Legearen 56. artikuluan ezarritakoarekin bat.
- 2022ko otsailaren 11n, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzako teknikariek saileko txosten juridikoa egin zuten, geroago adieraziko diren oharrekin.
- 2022ko otsailaren 18an, Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritzak generoaren ikuspegitik garrantzirik ez izatea justifikatzen duen txostena egin zuen, geroago adieraziko diren oharrekin.
- Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariaren 2022ko otsailaren 18ko Ebazpenaren bidez, jendaurrean jarri zen Datu Pertsonalak Babesteko Legearen aurreproiektua. Ebazpen hori 2022ko 44. EHAAan argitaratu zen, martxoaren 2koan.

2022ko 49. EHAAan, martxoaren 9koan, Datu Pertsonalak Babesteko Legearen aurreproiektua jendaurrean jartzen duen Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen zuzendariaren 2022ko martxoaren 9ko Ebazpenaren akatsen zuzenketa argitaratu zen.

Aurreproiektuaren testua, bi bertsioetan, gaztelaniaz eta euskaraz, egoitza elektronikoan zein Legegunea euskal araudiaren atarian argitaratu zen, hogeii egun balioduneko epean, 2022ko martxoaren 3tik martxoaren 30era bitartean. Bi alegazio jaso dira –geroago aztertuko dira–.

- Egun berean, 2022ko otsailaren 18an, txosten hauek eskatu ziren:
  - Alegazioen txostena, Eusko Jaurlaritzako gainerako sailei.
  - Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren txostena, Xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak bere 2.1 artikuluan xedatutakoarekin bat.



- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen txostena, Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak 19. artikuluan xedatutakoaren arabera.
  - Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitalak Zuzendaritzaren txostena, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 12.1.d) artikulua.
- 2022ko otsailaren 21ean, Datuak Babesteko Euskal Bulegoari, postaz, txosten-eskaera igorri zitzaion, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 17.1 h) artikuluan aurreikusitakoari jarraituz. Era berean, espedientean dauden dokumentuen kopia osoa bidali zen paperean, euskaraz eta gaztelaniaz.
  - 2022ko maiatzaren 19an, txostena eskatu zitzaion Kontrol Ekonomikoko Bulegoari.
  - -2022ko ekainaren 17an, txosten hauek eskatu zitzaizkion Kontrol Ekonomikoko Bulegoari: Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena eta Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena.
  - Funtzio Publikoaren Zuzendaritzak txostena egiteko legez ezarritako epea igaro ondoren, 2022ko uztailaren 8an, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari txostena egiteko eskaera egin zitzaion berriro.

### **III.- JASOTAKO OHARREN ETA EGINDAKO ALDAKETEN LABURPENA.**

#### **1. Sailaren txosten juridikoa**

Ohar hauek egin dira:

##### **I. Aurreproiektuaren testuaren idazketa:**

Zehapen-prozedurari buruzko bi ohar egin dira.

- Aurreproiektuaren 31. artikuluari dagokionez, honako hau adierazten da txostenean: «Artikulu honetan sartu beharko litzateke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 22.1 artikuluan ezarritakoaren arabera, interesdunei eskaera hori egin dela jakinarazteko betebeharra». Onartzen da ohar hori, eta 31. artikulua lehen lerrokada honela idatzita geratzen da:

«31. artikulua.- Prozedura eteteko arrazoiak. Administrazio-prozedura arautzeko oinarrizko legerian zein autonomia-erkidegokoan ezarritako kasuez gain, kapitulu honetan ezarritako izapidetze-epeak eten egingo dira automatikoki baldin eta, 2016/679 (EB) Erregelamenduak agindutakoaren arabera, informazioa, kontsulta, laguntza edo aginduzko irizpena eskatu behar bazaio Europar Batasuneko organo edo organismoren bati edo beste estatu kide batzuetako kontrol-agintaritzaren bati edo gehiagori, eta etendurak iraungo du eskaera egiten denetik Datuak Babesteko Euskal



Agintaritzari erabakia jakinarazten zaion arte. Eten hori interesdunari jakinaraziko zaio. (...).

- Bestalde, adierazten da aurreproiektuaren 32. artikulua ez duela aurreikusten erreklamaziogileari jakinaraztea, ezta prozedura behin-behinean artxibatzea ere. Onartzen da ohar hori, eta 32. artikulua bigarren lerrokada honela idatzita geratzen da:

«32. artikulua.- Erreklamatu gero egin beharreko izapideak. Izapidetzeko onartu aurretik egin beharrekoak. (...) Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak, ikusten badu eskumena datuak babesteko Estatuko beste agintaritzak bati dagokiola edo, mugaz gaindiko prozedura baten kasuan, 2016/679 (EB) Erregelamenduaren arabera agintaritzak nagusia den Europar Batasuneko beste estatu kide bateko kontrol-agintaritzak bati dagokiola, erreklamazioaren berri emango dio berehala eskumena duenari. Erreklamazioaren helarazpena eta behin-behineko artxibatzea erreklamaziogileari jakinaraziko zaizkio».

## II. Legegintza-teknika:

Ondorioztatzen da testua bat datorrela Gobernu Kontseiluak onartutako jarraibideekin, Xedapen Orokorrek Egiteko Prozedurari buruzko abenduaren 22ko 8/2003 Legearen hirugarren xedapen gehigarrian aipatzen direnekin.

Hala ere, honako aldaketa hauek egitea proposatzen da:

- *Lege-aurreproiektuaren izendapena. Aurreproiektuaren izenburua (Datu Pertsonalak Babesteko Legearen aurreproiektua) aldatzea eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko aipameneren bat sartzeari proposatzen dugu, arauturiko xedera hobeto egokitzen delako. Onartzen da oharra eta «Datu pertsonalak babesteari eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko Legea» izendapenarekin izapidetzen jarraitzea erabaki da.*
- 8.3 artikulua. Eusko Jaurlaritzari buruzko aipamena kentzea proposatzen da, erredundantea delako. Onartzen da oharra, eta aurreproiektuaren testua aldatu da.
- 34. artikuluan Datuak Babesteko Euskal Bulegoari egiten zaion aipamena Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari egin behar zaio. Onartzen da oharra, eta aurreproiektuaren testua aldatu da.
- Xedapen gehigarriak, iragankorrak, indargabetzaileak eta azken xedapenak. Horiek letra larriz agertzea proposatzen da, eta haren idazketak antolaketa-eredu bat du xede. Onartzen da oharra, eta aurreproiektuaren testua aldatu da.

## III. Hizkuntzaren erabilera ez sexista

Lehendakariaren 1994ko martxoaren 18ko bigarren jarraibidearen eta Emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistatik gabeko bizitzarako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.4 artikulua arabera, euskal herri-agintek ez dute hizkera sexista erabiliko, ez zuzenean, ez beste pertsona edo erakunde batzuen bitartez sortzen dituzten dokumentuetan eta euskarrietan.

Hori horrela izanik, artikulua haren idazketa aldatzea gomendatzen da:



- Zioen azalpenean (VI. apartatua) eta 8.5 artikuluan gaztelaniaz «*Viceconsejero*» aipatzen denean, «*Viceconsejero o Viceconsejera*» jarri beharko da. Onartzen da oharra, eta aurreproiektuaren testua aldatu da.
- 9.1 artikulua. Gaztelaniaz «*un representante*» dioen lekuan, «*una persona representante*» jartzea proposatzen da. Onartzen da oharra, eta aurreproiektuaren testua aldatu da.

#### IV. Enpresan duen inpaktuari buruzko txostena

Ondorioztatzen da lege-aurreproiektuak ez duela eraginik enpresen eraketan, abiarazpenean eta funtzionamenduan.

### 2. Generoaren ikuspegitik garrantzirik ez izatea justifikatzen duen txostena

Bertan ondorioztatzen da aztertutako araua generoaren araberako txostena egitetik salbuetsita dagoela. Hala ere, jatorrizko testuaren gaztelaniazko bertsioan honako aldaketa hauek egitea proposatzen da, eta hala sartu da aurreproiektuaren testuan, erabilitako hizkuntza inklusiboagoa izan dadin.

- 5. orrialdea. «*Los ciudadanos*» ordez «*la ciudadanía*» jarri da.
- 8. eta 27. orrialdeak. «*Los directivos*» ordez «*personal directivo*» jarri da.
- 9., 10., 21., 25. eta 28. orrialdeak. «*Los interesados*» eta «*el interesado*» ordez «*la persona interesada*» jarri da.
- 8., 25., 27. eta 28. orrialdeak. «*El infractor*» ordez «*la persona infractora*» jarri da.
- 11. eta 17. orrialdeak. «*Viceconsejero/a*» ordez «*Viceconsejero o Viceconsejera*» jarri da.
- 17. orrialdea. «*Un representante*» ordez «*una persona representante*» jarri da.
- 18. orrialdea. «*Dos expertos*» ordez «*dos personas expertas*» jarri da. «*Un sustituto*» ordez «*una persona sustituta*» jarri da.
- 30. orrialdea. «*Delegado de protección de datos*» ordez «*delegado o delegada de protección de datos*» jarri da.
- 31. eta 32. orrialdeak. «*El afectado*» ordez «*la persona afectada*» jarri da.
- 30. eta 32. orrialdeak. «*El reclamante*» ordez «*la persona reclamante*» jarri da.

Bestalde, DBEAko Kontseilu Aholku-emaiaren osaerari dagokionez, 9. artikuluan honako apartatu hau gehitu da:

«2. Aholku Batzordearen osaeran emakumeen eta gizonen ordezkaritza orekatua izateko ahalegina egingo da, trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokiarekin. Ondorio horietarako, ordezkaritza orekatutzat joko da sexu biek gutxienez % 40ko ordezkaritza dutenean».

Azkenik, tratamenduaren arduradunei eta eragileei egindako erreferentziak mantentzea erabaki da, nomenklatura hori erabiltzen baita bai European (DBEO) bai Estatuan (3/2018 Lege Organikoa eta 7/2021 Lege Organikoa). Aurreproiektuaren testuak terminologia zehatz horrekin finkatuta dauden figura horiek EAEko araudira eramaten ditu. Disfuntzioak saihesteko, egokitatzat jotzen da aldaketarik ez egitea eta orain arte markatutako ildotik jarraitzea.

Txosten honetan egindako ohar guztiak onartzen dira, eta testuari erantsi zaizkio.

Horrez gain, zioen azalpeneko «*los ciudadanos*» ordez «*la ciudadanía*» jarri da, eta 30. eta 41. artikuluetako «*el afectado*» ordez «*la persona afectada*» jarri da

### 3. Sailtako txostenak

Txosten hauek jaso dira:

a) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren txostena.

2022ko otsailaren 21ean oharririk egin ez izanaren txostena jaso zen.

b) Lan eta Enplegu Sailaren txostena.

2022ko otsailaren 21ean txosten bat jaso zen, eta bertan honako ohar hauek egin ziren 26. eta 27. artikuluei eta aurreproiektuaren aplikazio-eremuari buruz: Zehazki, honako hau planteatzen da:

*Zalantza sortzen da 26.1.a) artikulua eta 27.1 artikulua egungo idazketarekin, jakitea horietako zeinetan sartzen diren zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, hala nola Osakidetza edo izaera pribatu bereko baina zuzenbide publikoaren mende dauden egungo eta etorkizuneko beste erakunde batzuk, ahal publikoak baliatzen dituztenean. Gai garrantzitsua da, horren arabera zehazten baitira arau-haustea egiteagatik ezar daitezkeen zehapenak. Horregatik, 26. artikulua 1. apartatua aldatzea iradokitzen dugu, euskal sektore publikoko zein erakunderi egiten dion erreferentzia argitzeko».*

Maiatzaren 12an onartu zuen Eusko Legebiltzarrak 3/2022 Legea, maiatzaren 12koa, Euskal Sektore Publikoarena. Xedapen indargabetzaileak xedatzen duenez, *indargabetuta geratzen dira Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen III. titulua (Erakunde-mailako antolaketa) eta xedapen gehigarri bakarra (Euskal Autonomia Erkidegoko arlo publikoaren parte-hartzea duten erakundeak), bai eta lege honi kontra egiten dion maila bereko edo beheagoko beste edozein arau ere.*

2. artikulua arabera, legearen helburua da, besteak beste, administrazio orokorrak bestelako pertsonifikazio juridiko publiko edo pribatua duten eta euskal sektore publikoan sartzen diren erakundeak definitzea. Bestalde, 4. artikulua euskal sektore publikotzat zer ulertu behar den definitzen du, eta sailkapena egiten du.

Lege-aurreproiektu hori, beraz, Lan eta Enplegu Sailaren txostenean aipatzen diren zuzenbide pribatuko erakunde publikoei aplikatu dakieke.

c) Osasun Sailaren txostena.

2022ko martxoaren 2an, oharririk egin ez izanaren txostena jaso zen.

d) Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren txostena.

2022ko martxoaren 8an, oharririk egin ez izanaren txostena jaso zen.

e) Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailaren txostena.

2022ko martxoaren 11n, oharririk egin ez izanaren txostena jaso zen.

f) Turismo, Merkataritza eta Kontsumo Sailaren txostena.

2022ko maiatzaren 22an, oharririk egin ez izanaren txostena jaso zen.



g) Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren txostena:

2022ko maiatzaren 5ean, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Autogobernu Zuzendaritzaren txostena jaso zen. Txosten horretan, ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE SARI legea aplikatzeko aukera aztertzen zen, hark jendaurreko epean aurkeztutako alegazioak ikusita.

Txostenean, ondorio hauek atera ziren: (...)Batetik, DPBEDBLOren 57. artikulua arabera, EAEko kasu zehatzean, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari dagokiola EAEko sektore publikoa osatzen duten erakundeak arduradun diren datu pertsonalen tratamenduak kontrolatzea. Bestetik, onartze arauaren, hau da Euskal Sektore Publikoari Legearen, arabera, Izenpe SA eta halako beste erakunde batzuk euskal sektore publikoan integratuta daude, bere kapital nagusia –kasu honetan, guztizkoa– EAEko Administrazio Orokorren aurrekontuetan eta lurralde historikoetako foru-administrazioen aurrekontuetatik datorrelako. Horiek horrela, bada, agerikoa dirudi Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari dagokiola, eta ez Datuak Babesteko Espainiako Bulegoari, Izenpe SA arduradun den datu pertsonalen tratamenduak kontrolatzea, EAEko sektore publikoko erakunde bat delako.

Arestian adierazi den bezala, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak euskal sektore publikoari emandako definizio berriak, beraz, Izenpe barne hartzen du.

**4. Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzaren txostena.**

Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletarako Zuzendaritzak lege-aurreproiektuaren aldeko txostena egin du. Oro har, positiboki baloratzen ditu testua eta bertan sartutako berrikuntzak.

Hala ere, ohar bat egiten du gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzearen arloan DBEARI eskumenak esleitzeko aukerari buruz, aurreproiektuaren 6.2 artikulua arabera (eginkizunak eta ahalak).

Txosten horretan hau adierazten da:

«(...) Puntu honetan adierazi behar da aurreproiektuaren "6. artikulua.- Eginkizunak eta ahalak" delakoak honako erreferentzia generiko hau sartzen duela: "Halaber, legez esleitzen zaizkion eskumenak egikarituko ditu". Espedientean jasotako azalpen-memorian adierazten denez, aurreikuspen orokor hori sartu da DBEARI gardentasunaren eta informazio publikoa eskuratzearen arloko eskumenak esleitzeko aukeran pentsatuz, jada indargabetu den Euskal Autonomia Erkidegoko Gardentasunari eta herritarren partaidetzari buruzko lege-proposamenean (aurrerantzean, GHPLP) proposatzen zen bezala.

Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletarako Zuzendaritza honek ez du egokitzat jotzen DBEBri gardentasunari eta informazio publikoa eskuratzeari buruzko eginkizunak esleitzea, datuen babesarekin kontraesankorra baita».

«(...) Etorrizuneko lege batean gardentasunaren arloko eskumenak esleituko zaizkion organo independenteak jardura publikoaren gardentasunaren kultura sustatzeko eginkizunak hartu beharko ditu bere gain, eta, horrez gain, publizitate aktiboaren eta datuen irekieraren betebeharrak betetzen direla zaindu beharko du, bai eta informazio publikoa eskuratze eskubidea gauzatzen dela zaindu ere EAEn; bada, funtzio horiek ez datoz bat DBEBren berezko misioaren funtsarekin».



Hala ere, amaitzeko, honako hau ondorioztatu da: «*Hala ere, "legez esleitzen zaizkion eskumenak" aipamen orokorra egin denez, Zuzendaritza honek ezin du horri buruzko inolako eragozpenik jarri*».

Hain zuzen ere, Herritarrak Hartzeko eta Zerbitzu Digitaletako Zuzendaritzako teknikariek egindako txostenean adierazten den bezala, 6.2 artikulua hondar-klausula bat gehitu besterik ez du egiten, eta DBEBari DBEOren 57. eta 58. artikuluetan eta DPBLOren 49. eta 50. artikuluetan berariaz jasotzen ez diren beste eskumen batzuk esleitzeko aukera aurreikusten du, gardentasun-eskumen hori berariaz esleitu gabe.

Txostenak datuen babesaren arloko eskumenaren eta gardentasun-eskumenaren arteko kontraesan posible bat planteatzen du. Gure ustez, ez dago horrelako kontraesanik. Nahikoa da, adibide gisa, Andaluziako Gardentasun Publikoari buruzko ekainaren 24ko 1/2014 Legeak ezarritakoa kontuan hartzea; izan ere, lege horren arabera, Andaluziako Gardentasun eta Datuak Babesteko Kontseilua da Andaluziako Autonomia Erkidegoko gardentasunaren eta datuen babesaren arloko kontrol-agintaritza independentea.

Memoria hau idatzi den egunean, ez da ezagutzen Gobernu Irekiaren zuzendariaren 2022ko apirilaren 21eko Ebazpenean aipatzen den lege-aurreproiektuaren edukia – ebazpen horren bidez, gardentasunari eta herritarren parte-hartzeari buruzko lege-lerruneko xedapen orokor bat egitea jendaurrean jartzen da aurretiko izaeraz, 2022ko apirilaren 21etik maiatzaren 20ra–.

## **5. Emakunderen txostena**

2022ko martxoaren 4an, ondorio hauek dituen txostena jaso zen:

*«Datu pertsonalak babesteko legearen aurreproiektuak, funtsean, prozedura-alderdiak arautzen ditu, hala nola Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren araubide juridikoa, agintaritza hori osatzen duten organoak, haren eskumenak, funtzioak eta funtsezko alderdiak ezartzea; zehapen-araubidea eta datuak babesteko arauak urratuz gero bete beharreko prozedura ere arautzen ditu. Beraz, arau honetan araututako neurriek emakumeen eta gizonen egoeran eragiteko gaitasun txikia dutenez, generoaren arabera eraginari buruzko txostena egitetik salbuetsizat jo daiteke».*

## **6. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena.**

2022ko martxoaren 28an, ohar hauek jasotzen dituen txostena jaso zen:

### **I. Arauaren izenburua**

Hau adierazten da: «*Legearen izenburuak aukera eman behar du legearen xedea labur ezagutzeko. Horregatik, aurreproiektuaren izenburua berrikustea komeni dela uste dugu, bertan, otsailaren 25eko 2/2004 Legeak egiten duen bezala, Datuak Babesteko Euskal Agintaritza sartzeko; izan ere, horri dagokio aurreproiektuaren bai xedea bai edukiaren zati handi bat. Ondorioz, eta Agintaritzak oinarrizko eskubidearen bermatzaile gisa jokatzeko duen rola kontuan hartuta, etorkizuneko legearen izenburua "Datu Pertsonalak Babesteari eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko Legea" izatea proposatzen dugu*».

Sailaren txosten juridikoari buruzko atalean adierazi den bezala (iritzi berekoa zen), aurreproiektuaren egungo izenburua honako hau da: Datu Pertsonalak Babesteari eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari buruzko Legearen aurreproiektua.





## II. Agintaritza auzibidean ordezkatzeta eta defendatzea:

Agintaritzaren langile-mugak kontuan hartuta, lege-aurreproiektuari aurreikuspen bat eranstea proposatzen da, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legearen 10. artikulua laugarren apartatua jasotakoaren antzekoa (*Auzibidean jardun beharra badago, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioari zerbitzu juridikoen ardura izango da Datuak Babesteko Euskal Bulegoa ordezkatzeta eta defendatzea, arauetan xedaturik daukatena araberan*).

Laugarren lerrokada gehitu zaio aurreproiektuaren 3. artikuluari. Aurrerantzean, honela egongo da idatzita:

*«4. Auzibidean jardun beharra badago, Eusko Jaurlaritzaren Zerbitzu Juridikoaren ardura izango da Datuak Babesteko Euskal Agintaritza ordezkatzeta eta defendatzea, arauetan xedaturik daukatena araberan».*

## III. Bigarren Xedapen Iragankorra:

Xedapen honek dagoeneko hasita dauden prozeduren araubide iragankorrari egiten dio erreferentzia. Ildo horretan, kontrako zehapen-arauei atzeraeraginik ezaren printzipioari erreferentzia egitea proposatzen da.

Ez da egokitzat jotzen aipamen hori oraingo bigarren xedapen iragankorrean sartzea, Espainiako Konstituzioaren 9.3 artikuluan jasotako kasu bat delako.

## IV. Xedapen indargabetzailea:

Xedapen horri dagokionez, adierazten da aplikatu behar dela hargatik eragotzi gabe lehen eta bigarren xedapen iragankorretan jasotako araubide iragankorra.

Aurreproiektuaren testuan lehen xedapen iragankorraren aipamena barne hartzen da.

## 7. Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatze Zuzendaritzaren txostena:

2022ko apirilaren 19an, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatze Zuzendaritzaren txostena jaso zen. Honako ohar hauek daude txostenean:

### I. EAEko hizkuntza ofizialak erabiltzea.

*«Halere, badaude zalantza gehiago sortzen dizkiguten beste alderdi batzuk. Hala nola, gardentasunaren mesedetan argitaratu beharreko edukia; hauen artean izaera anitzekoak daude, hala nola: xedapen orokorren izapidean eman beharreko nahitaezko txostenak, datuen babeserako xedapenen urraketaekin zikusia duten prozedurei amaiera ematen dieten lehendakariaren ebazpenak, datuen nazioarteko transferentziak baimentzen dituztenak, kontsultei erantzuteko emandako irizpenak, ...»*

*Kasu hauetan argitaratu izan beharko den dokumentua EAEko hizkuntza ofizialetako bakarrean sortua izan daiteke, izapideari hasiera eman dion herritarrek eta gainerako parte hartzaileek hizkuntza horren aldeko hautua egin zutelako edo administrazio barne izapiderako dokumentu bezala izan delako emana. Iruditzen zaigu puntu hau argitu beharko litzatekeela; hots, zehaztu beharko litzatekeela*



*honelako dokumentuak argitaratzerakoan zein hizkuntza irizpide aplikatuko diren eta, jatorrizko hizkuntza bakarrean argitaratzea erabakiko balitz, zer nolako jarraibideak ezarriko diren herritarren batek horien itzulpena eskuratu nahiko balu».*

## II. Ikertzeko ahala eta baterako auditoretza-planak.

Aurreproiektuaren 10. eta 22. artikuluei dagokienez, ohar hau egin da:

*«Halaber, 10. artikuluan arautzen diren ikuskapenak eta, batez ere, 22. artikuluko auditoretza bateratuak zalantzak sortzen dizkigute. Iruditzen zaigu zehaztu beharko litzatekeela horietan guztietan legediak ezarritako herritarren hizkuntza eskubideak bermatuko direla, baita datuak babesteko Estatuko gainerako agintaritzetako langileen parte hartzeaz egiten diren ikerketa-jarduketara bateratuetan ere; hots, bertako zein gainerako agintaritzetako langileek herritarren hizkuntza eskubideak bermatu beharko dituztela. Edonola ere, onuragarria litzateke esku-hartze hauetako guztietarako hizkuntza irizpideak zehaztea, baita hizkuntza eskubideak bermatuak izango direla ziur gaudela aipatu ditugun kasuetarako ere».*

## III. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako Aholku Batzordea.

Hau adierazten da:

*«Artikuluaren 1. azpiatalean Kontseiluaren osaera ezartzen da; ondoren, 5. azpiatalean, honela dio:*

9. *artikulua.- Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako Kontseilu Aholku-emailea. 5. Artikulu honetan aurreikusita ez dagoen guztian, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren Estatutuak ezarriko ditu Kontseilu Aholku-emailearen araubidea, antolaketa, eskumenak eta funtzionamendua.*

*Artikuluan bertan aurreikusten ez diren gaien artean Euskal Sektore Publikoko erakundeen politika publikoen zehar-lerroak diren euskararen normalizazioa eta genero berdintasuna daude. Indargabetu nahi diren xedapenetara jotzen badugu, antzeko jokabidea ikus dezakegu bai Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko, otsailaren 25eko, 2/2004 Legearen 16. artikuluan, zein Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua onartzen duen, urriaren 18ko, 309/2005 Dekretuaren 8. artikuluan; ez bata ez beste ez dituzte euskararen normalizazioa eta genero berdintasuna aldagaiak aipatzen; honela diote hurrenez-hurren:*

16. *artikulua.– Kontseilu Aholku-emailea*

2.– *Kontseilu Aholku-emaileak berak onartuko ditu bere antolaketako eta funtzionamenduko arauak. Lehendakari-kargua eta idazkari-kargua egongo dira arau horietan aurreikusita, eta nola aukeratu edo izendatu behar diren ere bai.*

8. *artikulua.– Kontseilu Aholku-emailea.*

5.– *Kontseilu Aholku-emaileak bere antolamendu eta jardunbide arauak onartuko ditu, 2/2004 Legearen 16.2 artikulua eta 30/1992 Legearen 22tik 27rako artikuluekin bat.*

*Aurrekari horiek ikusita eta Kontseiluko kideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan egon daitekeen dokumentazioa kudeatu beharko dutenez, zein gainerako kideen hizkuntza eskubideak modu eraginkorrean bermatzeko eta administrazioak zaindu beharreko eraginkortasun eta efizientzia irizpideei jarraituz, komenigarria ikusten dugu jarraian proposatzen dugun testua edo antzekoa txertatzea:*

*Kontseiluko kideak izendatzerakoan kontuan hartuko da Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun edukitzea eta emakumeen eta gizonen arteko presentzia orekatua bultzatuko da.*

*Kontseiluko kideek euren jardunean hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dute. Euskararen normalizazioa helburu Kontseiluak horrela erabakitzen badu bilera deialdiak, gai zerrendak, aktak, ziurtagiriak eta testu idatziak oro har, euskaraz bideratu ahalko dira. Bestelakoa erabakitzen bada Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialen erabilera bermatuko da.*



*Gure aztertze esparruko gaia izan ez arren, genero berdintasunaren ikuspegia ere txertatzea proposatu izan dugu biak Euskal Sektore Publikoko erakundeen politika publikoaren zeharkako lerroak izanik».*

Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak egindako txostenak planteatzen du aurreproiektuan ez dela inolako aipamenik egiten hizkuntza ofizialei buruz, eta, hala ere, uste du testuaren manu askoren edukiak hizkuntza ofizialen erabilerari eragiten diola.

Txostenak dio, halaber, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzako Kontseilu Aholku-emaileari buruzko artikuluan ez dela berriaz aurreikusten hizkuntza-normalizazioa eta genero-berdintasuna, eta bi gai horiek aintzat hartzen dituen beste idazketa bat proposatzen du.

Ildo horretan, adierazi behar da txosten honetan aipatzen diren gai batzuk –hizkuntza-normalizazioa eta genero-berdintasuna– zeharkako bokazio nabarmena dutela, eta erregulazio-arau espezifikoak dituztela. Kasu horietan, ez da egokitzat jotzen sektoreko arauetan gai horiek erregulatzen dituzten manuak sartzea; izan ere, arau horiek kontraesanean egon litezke berriazko erregulazioarekin berarekin edo, hala badagokio, gai horiek arautzen dituzten arauen geroagoko aldaketekin, eta horrek arau sektorial horietan –gure kasuan, datu pertsonalen babesa eta Datuak Babesteko Euskal Agintaritza arautzen dituen araua– sartutako manuak aldatzea eskatuko luke.

## **8. Jendaurreko informazioko alegazioak.**

Aurreproiektua jendaurrean jarri den aldian (2022ko martxoaren 3tik 30era bitarteko egunak) bi alegazio jaso dira.

### **I. 2022ko martxoaren 4an aurkeztu ziren alegazioak.**

2022ko martxoaren 4an, pertsona fisiko batek aurkeztutako alegazio-idazki bat sartu zen, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Gobernu Irekiaren Zuzendaritzaren bidez.

Horretan iradokitzen da lege-proiektuaren idazketa hobetzea, interpretazio juridikoari buruzko zalantzak saihesteko, honako alderdi hauei dagokienez: Zerbitzu publikoak ematen dituzten zuzenbide pribatuko erakundeei dagokienez, horien zeintzuk diren argitzea aurreproiektuaren zioen azalpenean eta 2.1 artikularen j) eta k) apartatuetan.

Adierazi den bezala, maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak euskal sektore publikoari emandako idazketa berriak aurreko araudian jasotakoa zabaldu eta argitzen du, eta, beraz, alderdi horiek argitzen ditu.

### **II. ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE SAK 2022ko martxoaren 30ean aurkeztutako alegazioak.**

2022ko martxoaren 30ean, IZENPE SAK alegazio-idazki bat aurkeztu zuen. Honako hauek aztertzen dira xehe-xehe:

- IZENPE SA aurreproiektuaren 2. artikularen 2) letran sartzea zalantzakoa da.



- IZENPE SA aurreproiektuaren 2.1 artikularen j) letran sartzea ere zalantzazkoa da.
- Aurreproiektuaren 2.1 artikularen k) letra IZENPERi ez aplikatzea.
- Aurreproiektuan hirugarren xedapen gehigarri berri bat sartzeko proposamena. Bertan berariaz aipatuko da Legea ZIURTAPEN ETA ZERBITZU ENPRESA-EMPRESA DE CERTIFICACIÓN Y SERVICIOS, IZENPE SA merkataritza-sozietateari aplikatuko zaiola, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta foru-administrazioen zerbitzurako bitarteko propioa den aldetik, baita horien sektore publikoko erakundeena ere.

Aurretik esan den bezala, alegazio horiek zirela-eta egin zuen txostena Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Autogobernu Zuzendaritzak. Maiatzaren 12ko 3/2022 Lege berriak argitzen du zer ulertu behar den euskal sektore publikotzat, eta horren barruan sartzen du IZENPE.

9.

#### **IV. ORDENAMENDU JURIDIKOAREN GAINEKO ONDORIOAK**

Legea indarrean jartzeak halabeharrez ekarriko du Euskal Autonomia Erkidegoan gaur egun indarrean dagoen datuak babesteko araudia indargabetzea; baina araudi horren zati bat Datuen Babeseko Erregelamendu Orokorrak berak isilbidez indargabetu du.

Zehazki, legea indarrean jartzeak honako arau hauek indargabetzea ekarriko du:

- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.
- 308/2005 Dekretua, urriaren 18koa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena.
- 309/2005 Dekretua, urriaren 18koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua onartzen duena.

#### **9. Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena**

2022ko uztailaren 6an, Aurrekontu Zuzendaritzaren txostena jaso zen. Horren bidez, aurkeztutako lege-aurreproiektuaren berri eman zen, eta honako ohar hau egin zen:

*Komeni da ohartaraztea lege-aurreproiektuaren memoria ekonomikoan jasotako aurreikuspenek ez dutela, inola ere, aurrekontu-konpromisorik ekarri behar, alderdi horiek urteko Aurrekontu Orokorretan baino ez baitira jasotzen; beraz, horiek gauzatzeko eta garatzeko urteko zuzkidura ekonomikoak EAEko Aurrekontu Orokorren legeek ezartzen dutenera egokitu beharko dira, eta, beharrezkoa izanez gero, behar diren aurrekontu-aldaketak egingo dira DBEBak behar dituen baliabideak izan ditzan.*

*DBEBak 2023ko aurrekontu-proiektuan sartu beharko ditu lege hau onartzearen ondoriozko gastu eta diru-sarrera gehigarri guztiak.*



## **10. Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostena**

2022ko uztailaren 18an, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak lege-aurreproiektuaren aurkako txostena eman zuen, Datuak Babesteko Euskal Agintaritza Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan integratu gabeko erakunde gisa eratzeari dagokionez.

Txosten horretan, ohar hauek egiten dira:

### **a) Testuaren eta edukiaren azterketa**

Aurreproiektuaren 2. artikulua haren aplikazio-eremua ezartzen du.

Ildo horretan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emandako txostenean honako hau adierazten da:

Kontuan hartu behar da, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 4. artikuluko 3. eta 4. apartatuetan ezarritakoarekin bat etorritik, Euskal Sektore Publikoaren parte direla 2. artikulua egungo idazketan jasotzen ez diren beste erakunde batzuk. Hori dela eta, gomendatzen dugu legearen aplikazio-eremuaren definizioa berrikus dadila, 3/2022 Legeak berriki Euskal Sektore Publiko gisa definitu duenera hedatzea komenigarria izango balitz ere.

Iradokizun hori onartu da, eta beste idazkera bat eman zaio aurreproiektuaren 2.1 a) artikuluari, eta azken zatian sartu dira euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeak:

1. Lege hau aplikatuko zaie arduradun gisa erakunde hauek dituzten datu pertsonalen tratamenduei:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra, lurralde historikoetako foru-administrazioak eta Euskal Autonomia Erkidegoko toki-administrazioak, bai eta haien administrazio instituzionalak eta bakoitzaren sektore publikoa osatzen duten erakundeak ere, bai eta euskal sektore publikoa osatzen duten erakundeak ere.

### **b) Antolaketa-alderdien azterketa**

Aurreproiektuaren 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, Datuak Babesteko Euskal Agintaritza administrazio-agintaritza independentea da, nortasun juridiko propioa eta gaitasun publiko eta pribatu osoa ditu, eta herri-administrazioekiko inongo loturarik gabe betetzen ditu bere eginkizunak.

Ildo horretan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoak emandako txostenean honako hau adierazten da:

Definizio horretan Datuak Babesteko Euskal Bulegoa zuzenbide publikoko erakundea dela aipatzen ez bada ere, ez dago zalantzarik berriki onartutako Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legeak (EHAA, 97. zk., maiatzaren 20koa) 4. artikuluan euskal sektore publiko izendatzen eta definitzen duen horretan sartuta dagoela (EAEko sektore publikoaz gain, euskal administrazio publiko guztietako eta izaera publiko edo erdipublikoko beste erakunde batzuetako sektore publiko guztiek osatzen dute). Ondorioz, 5. artikuluan jasotako jarduketa-printzipioak aplikatu behar zaizkio, bai eta 6. artikuluan ezarritako euskal sektore publikoko erakundeen sorrerari eta eraldaketari aplikatu beharreko printzipioak ere.

EAEko legegileak, EAEko sektore publikoaren konfigurazioa diseinatzean, Estatuko sektore publikoa osatzen duten erakunde instituzionalen modalitateetako bat sartu du, hau da,



administrazio-agintaritza independenteak [Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 84.1.b), 109. eta 110. artikulua], erakunde batek, bere eginkizunak betetzeko, independentzia edo autonomia berezia behar duenerako. Hala ere, ez ditu modalitate autonomotzat hartzen, ez eta EAeko Sektore Publikoa osatzen duten gainerako entitateetatik bereizitako araubide juridiko espezifikodun modalitatetzat ere (40/2015 Legeak estatuko agintaritza independenteekin egiten duen bezala); aitzitik, zehazten du nahitaez organo (pertsone bakarrekoa edo kide anitzekoa), erakunde autonomo, zuzenbide pribatuko ente publiko edo partzuergo izan beharko dutela, esleitura dituzten eginkizunak betetzeko egokiena denaren arabera.

Gure ustez, legegilearen asmoa izan da administrazio-agintaritza independenteak EAeko Sektore Publikotik kanpo ez uztea, nahiz eta beren independentzia eta autonomia bermatu beren eginkizunak betetzean eta hartu beharreko erabakiak hartzean.

Azterketaren amaieran, honako hau adierazten da:

«Datuak Babesteko Euskal Bulegoak 3/2022 Legearen II. tituluko I. kapituluan ezarritako erakunde instituzionaletako baten izaera hartu behar du, eta, behar izanez gero, aurreproiektuaren testuan bertan sartu behar ditu ordenamendu juridikoak esleitzen dizkion eginkizunak eraginkortasunez eta efizientziaz betetzeko ezinbestekoak diren berezitasunak». Horregatik guztiagatik, aurreproiektuak DBEARi ematen dion konfigurazioak, 3/2022 Legeak berriki ezarritako EAeko Sektore Publikoaren diseinu instituzionaletik kanpo mantenduz, eta espedientean EAeko administrazio-agintaritza independenteentzat legez diseinatutako eredutik aldentzeko beharra edo arrazoizkotasuna ondorioztatu ahal izateko behar adinako oinarriak sartu gabe, proiektuaren aurkako iritzia ematera garamatza, alderdi horri dagokionez.

Datuak Babesteko Euskal Agintaritza Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan integratu gabeko erakunde gisa konfiguratzeari buruz Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako kontrako txostenari dagokionez, ohar hauek egiten ditugu, ondorio horrekin ados ez gaudela arrazoitzeko.

1. Erakunde independente horien inkardinazioari buruzko gai hori agerian geratu zen Estatu Kontseiluaren 274/2015 Irizpenean. Irizpen hori Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legearen aurreproiektuari buruz eman zen, eta 57. eta 58. orrialdeetan, Estatu Kontseiluak gai horri buruzko iritzia emateko aukera izan zuen, zentzu honetan (letra lodia gurea da):

(...) En realidad, los problemas planteados por la regulación proyectada derivan, en última instancia, de la aplicación supletoria a las autoridades administrativas independientes de un régimen jurídico pensado para los organismos públicos dependientes (organismos autónomos y entidades públicas empresariales). Esta supletoriedad ya está prevista en la disposición adicional décima de la Ley 6/1997, pero se hace más presente en el anteproyecto sometido a consulta desde el momento en que éste incluye a las autoridades administrativas independientes dentro de la misma categoría que los organismos autónomos y las entidades públicas empresariales, con las consecuencias ya señaladas para la autonomía orgánica y funcional de estas entidades. **La adecuada regulación de estas autoridades administrativas independientes exigiría que las mismas recibieran un tratamiento conceptual y jurídicamente distinto de los organismos públicos instrumentales (organismos autónomos y entidades públicas empresariales) que les dotase de un régimen jurídico general adecuado a su estatuto de independencia y susceptible de aplicación en lo no previsto en su legislación específica.** La Ley 2/2011, de 4 de marzo, de Economía Sostenible, realizó un valioso esfuerzo en tal sentido, al establecer un régimen jurídico común a los organismos reguladores actualmente refundidos por la Ley 3/2013, de 4 de junio, en la Comisión Nacional de los Mercados y la Competencia. Es cierto que los organismos reguladores ahora integrados en la mencionada Comisión presentan peculiaridades distintas a otros entes incluidos en la categoría de autoridades administrativas independientes, como lo es que, entre ellos, existe una gran heterogeneidad en su régimen jurídico. Sin embargo, existen unos mínimos de autonomía funcional que deben considerarse



comunes a cualquier ente que quiera merecer el calificativo de autoridad administrativa independiente (condiciones de nombramiento de los órganos directivos, prohibición de renovación, causas tasadas deremoción, inexistencia de recurso administrativo frente a sus decisiones, entre otros aspectos) y que demandan la **configuración de un régimen jurídico general de tales autoridades, distinto del previsto para las personificaciones instrumentales**, que tenga naturaleza supletoria en defecto de lo previsto en su legislación específica.

(...)

En definitiva, entiende el Consejo de Estado que la inclusión de las autoridades administrativas independientes dentro de los organismos públicos vinculados o dependientes de la Administración General del Estado, en general, y la aplicación del mismo control de eficacia y supervisión continua del artículo 60 previsto para los entes instrumentales, en particular, **no resulta conforme a las exigencias de autonomía de estos entes para el correcto ejercicio de sus funciones**. Las autoridades administrativas independientes -y, en especial, el Banco de España- deben recibir, dentro del sector público estatal, el tratamiento jurídico singularizado que demanda su posición institucional.

Gomendio hori kontuan hartuta, beste idazkera bat eman zitzaion aurreproiektuari, halako moldez non egungo Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 84.1.b) artikulua beren-beregi ezarri baitu Estatuko sektore publiko instituzionala osatzen dutela, besteak beste, administrazio-agintaritzak independenteek, zeinak, era berean, era autonomoan araututa baitaude 109. artikuluan (definizioa) eta 110. artikuluan (araubide juridikoa). Horregatik, DBEA bere Estatutuan eratzen da (389/2021 Errege Dekretuaren 1. eta 3. artikulua), estatu-mailako administrazio-agintaritzak independente gisa.

2. Ildo beretik jo zuen Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak 128/2015 Irizpenean, Euskal Sektore Publikoaren Antolamendu eta Funtzionamenduaren Legearen aurreproiektuari buruzkoan (115. epigrafetik 117.era):

115. Berezia da Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren kasua, ez baitirudi eztabaidagarria izan daitekeenik bulegoa sektore horretan sartzea, baina ez dago argi kontuan hartutako kasuetako zeinetan sartuta egongo litzatekeen. Aurreproiektuaren arabera, kasu orotan gertatuko litzateke, 4. zenbakiko b) letran aurreikusitakoa aplikatzearen ondorioz, baina nekez uler liteke, jarduera zuzenbide publikoaren arabera gauzatzen duen eta funts publikoekin finantzatzen den zuzenbide publikoko erakunde publiko bat euskal sektore publikoan sartzeko, hondar-irizpide bat erabili behar izatea, halakoa baita bere presidentetzaren edo ordezkaritza-organo gorenaren izendapena.

116. Gauza horiek guztiak argi jaso beharko liriateke arauan, nortasun juridiko independentea duten baina atxikipen-erregimenik ez duten erakunde publikoak aipatuta, baztertu gabe, era berean, segurtasuna areagotzeko, eta daukaten kopuru urria kontuan hartuta, erakunde horien bana-banako zerrenda jasotzeko aukera.

117. Euskal Herriko Unibertsitatea sektore publiko horretan sartzea ere egokia da, zerbitzu publikoa ematen duen eta gehienbat funts publikoekin finantzatuta dagoen erakunde publiko bat delako.

Gomendio horri erantzunez, Euskal Herriko Unibertsitatea berariaz sartzeko Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 4.2 artikuluan, baina ez dago horri buruzko berariazko aipamenik egungo Datuak



Babesteko Euskal Bulegoari (etorkizuneko Agintaritza) buruz. Gure ustez, ez dago zalantzarik artikulua horren aplikazio-eremuan ere jasota dagoela (beste edozein erakunde, baldin eta haiek sortzeko arauak berriaz hala ezartzen badu), eta ez Lege honen 10. artikuluan, Kontrol Ekonomikoko Bulegoaren txostenak azaldutakoaren ildotik, zeinaren arabera aurreproiektuak DBEARi ematen dion konfigurazioa EAeko Sektore Publikoaren diseinu instituzionaletik kanpo mantentzen baitu, 3/2022 Legeak ezarri berri duen bezala, eta, gainera, espedientean ez da behar adinako oinarriak sartzen EAeko administrazio-agintaritza independenteentzat legez diseinatutako eredutik aldentzeko beharra edo arrazoizkotasuna ondorioztatu ahal izateko.

Arrazoi nahikorik ez egoteari dagokionez, espediente elektronikoari erantsitako azalpen-memoriaren 7. orrialdean honako hau adierazten da:

Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuak datuen babesari buruzko arau espezifikorik ez duenez, aurreproiektuaren aplikazio-eremu subjektiboa mugatzeko, tratamenduaren arduradun diren erakundeak sektore publikokoak izan behar dira, edo tratamendu hori ahalmen juridiko publikoen egikaritzarekin lotu behar da.

Ildo horretan, indarrean dagoen DBLOk mugatutako eskumen-eremua osatu egin behar da, autonomia-erkidegoko arauak arautu ditzan sektore publikoa deritzonak egindako datu-tratamendu guztiak.

Irismen hori kontuan hartzeko, Euskal Sektore Publikoaren Lege Proiektuan (aurrerantzean, EHSPLP) xedatutakoa hartu behar da kontuan, oraindik onartu ez bada ere; izan ere, horren sistematikak aukera ematen du DPBEDBLOren 57.1 a) artikuluan ezarritako esparruan sartuko liratekeen tratamenduak izango lituzketen Administrazioak, Erakundeak eta Organismoak mugatzeko.

Bestalde, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak ere iritzia eman zuen gai horri buruz, 129/2015 Irizpenean, euskal sektore publikoaren gardentasunaren, parte-hartzearen eta gobernu onaren lege-aurreproiektuari buruzkoan. Irizpen horren 18. artikulua informazio hori ematera behartuta dauden subjektu publikoak ezarri nahi zituen:

125. Aintzat hartuta GGOL-ek arautzen duena, aurreproiektuak bere baitan jaso behar ditu lege hartan “zuzenbide publikoko erakundeak, nortasun juridiko propioa dutenak, Autonomia Erkidegoko Administrazioari lotuak edo hari atxikitakoak” izendapena jasotzen dutenak edo “zuzenbide publikoko erakundeak, independentzia funtzionala edo legeak aitortutako autonomia berezia izan eta sektore edo jardura jakin baten gainean hura kanpotik arautu edo ikuskatzeko eginkizunak dituztenak” —horietako bat da, esaterako, Datuak Babesteko Euskal Bulegoa—. Batzordearen iritzian, izendapen konkretuen bidez egin behar da hori, edo bestela, itxiera-klausula bat ezarri.





3. Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Kontrolerako Agintaritza Independentea da, Eusko Legebiltzarraren otsailaren 25eko 2/2004 Legearen bidez sortua (10. artikulua), zuzenbide publikoko erakunde gisa, nortasun juridiko propioa eta jarduteko gaitasun osoa dituela, herri-administrazioekiko independentziaz jarduten duela bere eginkizunak betetzean, eta lege honek eta urriaren 18ko 309/2005 Dekretuaren bidez onartutako bere estatutuak arautzen dutela.

Datuak Babesteko Euskal Bulegoa ez dago Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren egituraren barruan, eta ez dago haren erakunde-sarearen barruan. Eusko Jaurlaritzarekin Jaurlaritzaren Lehendakariordetzaren bitartez du harremana, baina Administrazio horrekiko independentea da, ez du mendekotasun-, lotura- edo mendekotasun-loturarik, baizik eta berdintasun-baldintzetan eta harreman-maila altuan.

Garrantzitsua da azpimarratzea Bulego honen eginkizuna dela pertsonak beren datuak babesteko duten oinarrizko eskubidea zaintzea eta Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio eta erakunde publikoek eskubide hori aplikatzen dutela kontrolatzea. Bere eginkizun eta ahalen artean, zehatzeko ahala dago, eta euskal administrazioak zigortzen ditu datu pertsonalak tratatzen dituztenean, oinarrizko eskubide hori arautzen duen araudia urratuz. Araudi hori, gaur egun, honako hauetan dago jasota: Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean (2016/679 (EB) Erregelamendua, apirilaren 27koa); Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legean; eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legean.

Erakunde honen funtsezko ezaugarrietako bat independentzia da. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutunean adierazten da datu pertsonalen babesa agintaritza independente baten kontrolaren mende egon behar dela ( 8.1), eta Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuan, 16.2 artikuluan.

Era berean, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrak (DBEO) erabateko independentzia duten kontrol-agintaritzak gonbidatzen ditu, funtzionaltasun hutsetik harago, eta haien jarduera osoaren berri ematen du, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak behin eta berriz emandako jurisprudentziarekin bat etorritik, besteak beste, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2010eko martxoaren 9ko epaian (C-518/07 gaia, Batzordea eta Alemania), Europar Batasuneko Justizia Auzitegiaren 2012ko urriaren 16ko epaian (C-614/10 gaia, Batzordea Austriaren aurka) eta 2014ko apirilaren 8ko epaian (C-288/12 gaia, Batzordea Hungariaren aurka).

Datuak babesteko agintaritzen araubideak, alde batetik, saihestu egin behar du botere publikoen esku-sartzeak eragina izatea esleitura dituzten eginkizunak eta ahalak behar bezala betetzean, eta, era berean, independentzia osoa gauzatu behar da agintaritza horiei beren eginkizunak betetzeko behar dituzten giza baliabideak, baliabide materialak, teknikoak eta finantza-baliabideak emateko premian, DBEOren 52.4 artikulua estatu kideei berriaz ezartzen dien bezala.



## **11. Beste gai batzuk.**

Aurreproiektuaren 3.1 artikulua araberan, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak Lehendakaritzaren bitartez du harremana Eusko Jaurlaritzarekin.

Artikulu horren idazketa berriz aztertu ondoren, gure ustez, lehendakariari dagokio Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretuan legegintzaldi bakoitzerako zehaztea zein den DBEArekiko harremanetarako organoa.

Horregatik, aldatu egin da aurreproiektuan jasotzen den hasierako idazketa, eta honako hau jarri da haren ordeztan: *“Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak Eusko Jaurlaritzarekin erlazionatzen da, lehendakariak Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen Dekretuan legegintzaldi bakoitzerako ezartzen duen sailaren bidez”.*

## **12. EABJren 182/2022 Irizpena**

2022ko urriaren 24an, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren 182/2022 Irizpena jaso zen. Aldeko txostena eman zaio irizpenerako aurkeztu diguten lege-aurreproiektuari, baina zenbait ohar eta gogoeta egin dira, hala araugintza-teknikari buruzkoak nola artikuluen azterketari buruzkoak.

Ohar eta gogoeta horiek kontuan hartu dira, eta, beraz, gehienak aurreproiektuaren azken bertsioa gehitu da. Horrek, gainera, aldatu egin du aurreproiektuaren zenbakia, eta 25. artikulua gehitu zaio.

Aurreproiektuak berrogeita bi artikulua, bi xedapen gehigarri, bi xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta azken xedapen bat ditu. Artikuluetarako barne-igortzeak ere aldatu egin dira.

Hona hemen aurreproiektuaren testuan egindako aldaketak esanguratsuenak:

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren irizpenean adierazten da aurreproiektuaren 18. eta 19. artikulua berrikusi, osatu eta birformulatu behar direla (330-359 puntuak). Lan hori egin ondoren, honela idatzita geratuko dira artikulua horiek:

### **18. artikulua.- Jokabide-kodeak.**

1. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak sustatu eta onartuko ditu lege honen aplikazio-eremuan sartzen diren subjektuen tratamendu-jarduerak arautuko dituzten jokabide-kodeak. Era berean, jokabide-kodeak gainbegiratzeko erakundeak akreditatzeko irizpideak prestatu eta argitaratu ahal izango ditu.

2. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 63. artikuluan jasotako koherentzia-mekanismoaren mende jarri beharko ditu jokabide-kodeen proiektuak,



Erregelamenduaren 40.7 artikulua agintzen duen kasuetan. Kodea onartzeko prozedura etenda geldituko da Datuak Babesteko Europako Lantaldeak Erregelamenduaren 64.1.b) eta 65.1.c) artikuluetan jasotzen den irizpena ematen ez duen bitartean.

3. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak berak onartutako jokabide-kodeen erregistroa izango du. Bitarteko elektronikoen bidez eskuratu ahalko den erregistro hori lotuta egongo da datuak babesteko Estatuko gainerako agintaritzen erregistroekin. Halaber, erregistro hori Datuak Babesteko Europako Lantaldeak kudeatzen duen erregistroarekin koordinatuko da 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 40.11 artikulua arabera.

4.- Erregistroaren edukia eta onartzeko prozeduraren berezitasunak dekretu bidez ezarriko dira.

### **19. artikulua.- Ziurtagiriak.**

1. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak ziurtagiriak eman, ziurtapen-irizpideak onetsi eta ziurtapen-organismo edo -erakundeak egiaztatu ahal izango ditu datuen babesaren arloan, lege honen 2. artikuluan aipatzen diren arduradun eta eragileek egindako tratamendu-jarduerari dagokienez, Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorren 42. eta 43. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

2. Aurreko hori galarazi gabe, Egiaztatze Erakunde Nazionalak (ENAC) ziurtapen-entitateei onespenu eman, kendu edo berri dituela jakinarazi beharko dio Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari, eta horretarako erabili duen arrazoia azaldu ere bai.

### **- 23. artikulua. Lankidetzaz mugaz gaindiko prozeduren esparruan**

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak 368. puntutik 384.era aztertzen du gai hori, eta, bere irizpenean egindako gogoetak kontuan hartuta, aurreproiektuaren 23. artikulua testua berriz aztertzea iradokitzen du. Aldatu egin da artikulua horren lehenengo apartatua, artikulua hori honela igeratuko da:

1. Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak agintaritzak nagusi edo interesdun izan ahalko da mugaz gaindiko prozeduretan, (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 56. eta 60. artikuluetan ezarritakoaren arabera.

### **- 26. artikulua. Arau-hausteen preskripzioa**

Zehapen-araubideari dagokionez, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak dio ez duela funtsezko arazorik planteatzen, oro har ez baita ikusten DBEOren mugak ezagutzen ez dituen aurreikuspenik.

Hala ere, adierazten du, besteak beste, bereizita eta beste manu batean jorratu beharko litzatekeela arau-hausteen preskripzioa (412. paragrafoa). Horrenbestez, artikulua berri bat sartu da aurreproiektuaren testuan (26. artikulua), eta honela idatzita geratu da:

1. (EB) 2016/679 Erregelamenduaren 83. artikulua 4., 5. eta 6. apartatuetan aipatzen diren arau-haustea hiru urtera preskribatuko dira, bi urtera edo urtebetera, oso astuntzat, astuntzat edo arintzat



jotzen diren, abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren 72. artikulutik 74. artikulura xedatutakoaren arabera.

2. Maiatzaren 26ko 7/2021 Lege Organikoan tipifikatutako arau-haustek sei hilabetera, bi urtera edo hiru urtera preskribatuko dira, arinak, astunak edo oso astunak diren, hurrenez hurren.

3. Arau-haustearen preskripzioa, lege honen IV. kapituluan ezarritako prozedura interesdunari jakinarazita hastea, eta preskripzio-epea berriz hastea, baldin eta zehapen-espeditentea sei hilabete baino gehiago geldirik badago ustezko arau-hausleari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik.

### - 33. artikulua. Erreklamazioak izapidetzea. Izapidetzeko onartu aurreko jarduketak.

EABJak 466.etik 472.era bitarteko paragrafoetan egindako oharrak aztertu ondoren, epeak bateratzea erabaki da, eta gehienez ere hilabeteko epea ezarri da, bai erreklamazioa tratamenduaren arduradunari edo eragileari helarazten zaionean, Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren eskumena egiaztatu ondoren (hirugarren apartatua), bai gainbegiratze-organoari helarazten zaionean, jokabide-kode bati atxikita badaude (laugarren apartatua).

Azkenik, hirugarren atalean honako aurreikuspen hau gehitu da: "Hilabeteko epea igaro eta erreklamazioari emandako erantzuna Datuak Babesteko Euskal Agintaritzari jakinarazi ez bazaio, agintaritzak prozedurak aurrera jarraituko du". Horrela, osatu egiten da aurreproiektuaren testuan erreklamazioak izapidetzeko onartu aurreko jarduketa horiek izapidetzeko jasotakoa.

### - 37. artikulua. Aurretiazko ikerketa-jarduketak.

EABJren irizpenaren 475. paragrafoan eta hurrengoetan, administrazio-isiltasunaren esanahia aztertu eta zalantzan jartzen da, eskubideak baliatzearen ondoriozko erreklamazio-prozedura ebazteko epea igaro ondoren (aurreproiektuaren aurreko 36. artikulua).

37. artikulua idazkerari eustea erabaki da, eta, beraz, isiltasunaren zentzua ezezkoa izango da ebazteko ezarritako sei hilabeteko gehieneko epea igarotzen den eskubideak baliatzeko prozeduretarako; izan ere, bestela, jarduerarik ezak ekar lezake erreklamazioak eskuratzea tratamenduaren arduradunak behar bezala ukatutako eskubideak, horretarako eskatzen diren baldintzak ez betetzeagatik.

Aukera hori, isiltasuna ezesteko zentzuari dagokionez, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 64.4 artikuluan ere hautatu da.

### - Bigarren Xedapen Gehigarria. Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren aipamenak.

Bigarren xedapen gehigarriak idazketa berria izango du, eta apartatu berri bat gehituko da. Apartatu horretan adierazten da Datuak Babesteko Euskal Agintaritzaren subrogatuko



dela Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren posizio juridikoan, haren titulartasuneko ondasun, eskubide eta betebeharrei dagokienez.

#### **IV. ORDENAMENDU JURIDIKOAN IZANGO DUEN ERAGINA.**

Legea indarrean jartzeak nahitaez ekarriko du Euskadin gaur egun indarrean dagoen datuak babesteko araudia indargabetzea, nahiz eta araudi horren zati bat isilbidez indargabetuta dagoen Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorrean bertan.

Zehazki, indarrean jartzeak honako arau hauek indargabetzea ekarriko du:

- 2/2004 Legea, otsailaren 25ekoa, Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa Sortzeari buruzkoa.
- 308/2005 Dekretua, urriaren 18koa, datu pertsonaletarako jabetza publikoko fitxategiei eta Datuak Babesteko Euskal Bulegoa sortzeari buruzko otsailaren 25eko 2/2004 Legea garatzen duena.
- 309/2005 Dekretua, urriaren 18koa, Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren Estatutua onartzen duena.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren data.

Izpta.: Araubide Juridikoaren, Zerbitzuen eta Hauteskunde Prozesuen Zuzendaritza.